# KANTA ETA BIDEOKLIPAREN AURKEZPENA

**KOKAPEN BERRIA!**

## APIRILAREN 30EAN IKASTOLAKO KIROLDEGIAN



Baditugu prest Araba Eukaraz 2021eko kanta eta bideoklipa. Apirilaren 30ean, ostirala, aurkezpen publikoa burutuko dugu hedabide eta herritarrentzat.

Gure gogoa egitasmoan parte hartu duzuen guztioi bertoratzeko aukera ematea da baina bizi duen egoerak toki kopuru mugatuko ekitaldia egitera behartuko gaitu.

Baldintza teknikoengatik, aurkezpen herritarra Ikastolan berton egingo dugu, kiroldegian, 17:00etan.

Ekitaldian kanta eta bideoklipa ekoizten aritutako bertsolari, musikari, dantzari eta bideogilea izango ditugu egindako lana aurkeztu dezaten eta eskertu diezaiegun.

Esan bezala, toki kopuru mugatua dugu eta emanaldian parte hartzeko aurretik izena eman beharko da. Gehienik jota 5 lagunentzako tokia gorde ahal izango da izen emate bakoitzean eta 6 urtetik beherako ikasleak heldu baten ardurapean egon beharko dira.

**izena eman**